Suplico á V. encarecidamente publique en su interesante Revista EUSKAL-ERRIA la citada composición.

Siempre de V. agradecido amigo y S. S.

GUILLERMO IGUARÁN.

# AINGERU BAT GEYAGO

## Saratar Magdalen Larralde-ren oroimengarriari

Gau erdia da; Doniban dago
Lotan odoi beltzaren artean!
Ez da izarrik, ez illargirik,
Dana, dana dago itzal pean!
Badiruri bizitu ez dala
Iñoiz iñor zure lurrean!...
Zer gertatzen da, Doniban, zure
Lengo kale alai ederretan?
Zer samiñ edo zer doakabek
Jarri zaitu gaur zori onetan?
. . . . . . . . . . .

II

Adi zazu, Pinet! ez dezu zuk
Ikusi aurra bat noiz baitian
Ezpañetako far-irriakin
Lo-lo seaskaren balantzian!
Ez dezu, berriz ere, ikusi
Ama beriaren bularrian
Ta nola aurchoa jostatzen dan
Bai, bere amaren magalian!
Dakizu ama onen malko bat
Zerdan isuritzen zayonian?
. . . . . . . . . . . . . .
. . . . . . . . . . . . . .
O! Pinot! ¡ez! ez dezu aditzen!
Gogortu zaizu bizitz guztia
Ez dezulako gordetzen iñoiz
Jaungoikoaren izen eztia!...
Ilko dezula! esaten dezu,
Datorrenean egun argia:
Biar badezu ito odoletan
Zure errabian ase zaitia!
Eta ill zazu gure Magdalen
Uda berriko lore garbia!

III

Gure Magdalen joan zan illtzera
Begiraturik zeru goyari,
Ala nola zai guztiz pozkidaz

Dagonian nor joateko larri.
Arri zaitezte ¡a! *ill-zalleak*
nai zionian bizitza ebaki,
Fedez beterik neskatchak zion:
—Nere burua nai dezu? tori—
Orlasen joan zan zuzen Zerura
*Salve Regina, salve,* kantari.

IV

Beltzez jantzirik Doniban dago,
Zure elizaren ezkillen otsak
Banatzen ditu antsi tristean
Dutena senti kristau biotzak.
Or! Or dijoa buruzai Pinet!
Or dijoaz gudari arrotzak,
Madarikatzen beren sentzuak
Bendabalaren chimist zorrotzak
. . . . . . . . . . . . . . .
. . . . . . . . . . . . . . !
O! Euskaldunak, o! Euskaldu–
[nak
Gora itzagun geren otoitzak!!

FRANZISKO LOPEZ ETA ALEN.

# MEMORIA DE LA ASOCIACIÓN BASCO-NABARRA

## DE BENEFICENCIA DE LA HABANA

Esta corporación, tan amada por todo buen euskalduna, ha tenido la atención de remitirnos un ejemplar de la Memoria correspondiente al último año económico.

Los ingresos que en ese plazo ha tenido la Asociación han sido 11.785,33 pesos, y los gastos 8.070,06, invirtiéndose en pasajes á la Península y en socorros 1.458,56 pesos en oro y 1.511,53 en plata.

En la caja de la Asociación, que cuenta con 670 socios, quedaba un remanente de 3.715,27.